

<b>PRESTAKUNTZA-ARLOA:</b>	Antolakuntza, giza baliabideak eta zerbitzuaren kalitatea
<b>MODALITATEA:</b>	Lineakoa
<b>HIZKUNTZA:</b>	Gaztelania

## GESTIÓN DE EQUIPOS (Pacific)

KODEA 2018-21-4-1

### INFORMAZIO OROKORRA

**IRAUPENA** 18 ordu **GEHIENEZKO KOPURUA** 20 lagun

**TRAILERRA** [Vídeo vimeo Pacific](#) **IKASTARORAKO SARBIDEA** <http://students-platform.gamelearn.io>

**HARTZAILEAK** Taldeen eta proiektuen kudeaketan ohituta dauden Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileak, beren lidergo-trebetasunak garatu nahi dituztenak.

**ESKAKIZUNAK**

- Posta elektronikoa kontu bakar bat ikasleko.
- Administrazio Orokorreko langileek: Korporazio-saretik kanpoko posta-zerbitzarietatik eta zerbitzarietara mezuak bidaltzeko eta jasotzeko aukera ematen duen posta elektronikoko kontua. Ez dira baliozkoak izango mezuak soilik sare korporatiboaren barruan bidali eta jaso ditzaketanak.

**ESKAKIZUN TEKNIKOK**

**SOFTWAREA:**

- Windows XP edo goragokoa, eta Interneteko konexioa.
- Nabigatzailea: Internet Explorer 11, Mozilla Firefox, Google Chrome edo Safari
- Pantailaren bereizmena: 1024 x 768 (gomendatua)
- 2GB-ko RAM memoria.

**HARDWAREA:**

- PC Pentium III edo hobea
- Soinu-txartela
- Banda zabaleko Internet konexioa (gomendatua ADSL 3Mbps, gutxienez)

**TUTORETZAK**

Tutorearen egitekoak:

- Ikasleei ongi-etorria emateko mezu bat bidaltzea.
- Kontsultei erantzutea:
  - 24 orduko epean erantzutea
- Ikaskuntzaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

HILA	HASIERA	AMAIERA	ADMINISTRAZIO OROKORRA		BESTE ADMINISTRAZIO BATZUK	BAJEN JAKINARAZPENAK (matrikula kosturik ez dago)
			ESKATZEKO AZKEN EGUNA	Oniritzia	ESKATZEKO AZKEN EGUNA	
MARTXOA	Martxoaren 1a	Martxoaren 21a	Otsailaren 5a	Otsailaren 6tik 9a	Otsailaren 9a	Otsailaren 28ra arte

### HELBURUAK

**HELBURU OROKORRAK**

Lidergo-trebetasunak garatzea simuladore bat erabilia: jokoan bidez lidergoko teknikak, baliabideak eta trebetasunak ikasi. Motibazioa, talde-lana, zereginak eskuordetzea eta etengabeko feedbacka lantzeak lagundu egiten du komunikazioa eta taldeko errendimendua bultzatzen.

**GAITASUNAK**

Prestakuntza-ekintza amaitzean, ikaslea gai izango da:

- Errendimendu handiko taldeak kudeatzeko jarraitu beharreko urratsak identifikatzeko.
- Bere eraginkortasuna eta bere taldearen efizientzia areagotzeko teknikak aplikatzeko.
- Komunikazioa hobetzeko, zereginak eskuordetu, feedbacka eman eta errendimendua ebaluatu ahal izateko.
- Taldeko gatazkak konpontzeko aholkuak praktikan jartzeko.
- Lidergorako eta pertsonen kudeaketarako dituen trebetasunetan konfiantza eta segurtasuna areagotzeko.

## GESTIÓN DE EQUIPOS (Pacific)

### DESKRIBAPENA

Lidergoa garatzeko on-line ikastaro interaktiboa da "Pacific". Bideojoko baten bitartez, errendimendu handiko taldeen kudeaketarako eskuliburua jartzen da praktikan.

Lidergo-trebetasunak landu nahi dituen edozein pertsonaren lan egiteko moduari egokitzeko diseinatuta dagoen simuladore honekin praktikak egin ahal izango dituzu, lidergorako teknikak, baliabideak eta trebetasunak ikasten dituzun bitartean. Ikastaroaren planteamendu teorikoari dagokionez, motibazioa, talde-lana, zereginak eskuordetzea eta etengabeko feedbacka azpimarratzen ditu, komunikazioa eta talde barruko gure errendimendua bultzatzeko.

### PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

#### METODOLOGIA

Autoprestakuntza-ikastaroa online. Teoria eta praktika tartekatzen ditu ikastaro osoan zehar. Tutorearen ikasgaien ondoren kasu praktiko bat ebatziko da modulu bakoitzeko. Ikasleak egokiena den negoziazioa burutu beharko du jokoan aurrera egin ahal izateko. Hau da, alde bientzat onena den konponbidea bilatu beharko du. Feedbackaren bitartez, ikaslea gai da bere akatsez ohartzeko eta bere erabaki estrategikoetatik ikasteko.

#### DESKRIBAPENA

Joko honetan, hautatzen duzun taldeko liderraren azalean jarriko zara: Omar edo Mairen azalean. Uharte batean zaudete harrapatuta eta globo bat eraiki eta ihes egiteko taldearen buru izatea izango da helburua. Isolatuta egotearen eta naturaren berezko zailtasunak gainditu beharko dituzu zenbait egun birtualetan. Testuinguru egokia zure lidergorako trebetasunak garatzeko eta talde-lana sustatzeko. Pertsonen kudeatzaile gisa, hainbat tresna izango dituzu eskura: zereginen zuhaitza, taldeko ekintzak, talde-eta pertsonaia-fitxak, trebetasunen mapa eta ikaskuntzan egindako aurrerapenak ikusteko eredu teorikoa. Uhartean zauden bitartean, taldeko ekintzak burutu beharko dituzu, taldea motibatuta edukitzeko. Helburuak eta arauak definitu beharko dituzu, talde-lana, gatazkak konpondu eta prozesuak garatu. Gainerako pertsonaiekin elkarerragiteko aukera izango duzu eta zereginak eskuordetu, feedbacka eman, garatu, saritu eta galdetzeko. Hori guztia, motibazioari eusteko.

Uhartean ekintzak egin ahala, zure energia gutxitzen joango da. Energiatz berriz betetzeko, beste egun batera joan beharko duzu. Une horretan, sistemak zure eboluzioaren feedbacka emango dizu, baita hobetzeko alderdiak zuzentzeko aholkuak ere.

#### PROGRAMA

- I. modulua: Barrutik kanpora.
  - Neure burua ezagutu eta nire izaerak nolako eragina duen taldean.
  - Nola hobetu dezakedan kontuan hartu, eredu izan eta feedbacka erabili etengabeko hobekuntzarako tresna gisa.
- II. modulua: Eman zentzua taldeari
  - Taldearen misioa, ikuskera eta baloreak finkatu.
  - Arauak ezarri eta helburuak planifikatu.
- III. modulua: Kideekin "taldea" egin
  - Pertsonen eta taldearen indarguneak eta ahulguneak aztertu.
  - Konfiantza eta interdependentzia giroa eraiki
- IV. modulua: Motibatu
  - Pertsona bakoitzaren beharrak eta motibazioak antzeman eta ulertu.
  - Taldearen eta hura osatzen duten pertsonen motibazioa areagotzeko baliabideak eta tresnak erabili.
  - Emaizak aitortu eta saritu.
- V. modulua: Landu
  - Taldeko pertsonen komunikazio gaitasuna hobetu.
  - Arazoak konpondu eta erabakiak hartu.
- VI. modulua: Bultzatu
  - Eskuordetze eraginkorra.
  - Feedback positiboa eta negatiboa eman eta jaso.
  - Errendimendua ebaluatu.

## GESTIÓN DE EQUIPOS (Pacific)

### EBALUAZIOA

Ebaluazioarekin lortu nahi da modulua egin duten pertsonen zenbateraino bete dituzten helburuak egiaztatzea eta aurreko puntuetan proposatutako gaitasunak zenbateraino eskuratu dituzten egiaztatzea. Eskuratutako gaitasunak praktikan jarrita egiten da ebaluazio-sistema, ebaluazioa etengabea da eta jokoak egoera berriak planteatu ahala, jokalariek nolako erabakiak hartzen dituen hartuko da kontuan.

Ebaluatze metodoa: Aurretiko ikaskuntza eta esperientzietan oinarrituta, ikasleak ahalik eta erabaki onenak hartu beharko ditu helburuari jarraitzeko: uhartetik irteteko globo bat egin eta taldea ahalik eta lan-giro onenean aritu dadila. Eguneroko, ikasleak zereginak eman beharko dizkie taldeko kideei; ondo ezagutu beharko ditu kideak arazoak konpontzeko edota zorientzeko, hala dagokionean.

### IKASTAROAREN BALORAZIOA

Ikasleen gogobetetze-maila neurtzeko inkesta  
Posta elektronikoaren bidez, inkestaren lotura jasoko duzu, bete dezazun.

### ZIURTAGIRIA

**Aprobetxamendu-ziurtagiria** eskuratzeko bete beharreko baldintzak:

- Eguneroko probak gainditzea uhartetik globoz irtetea lortzeko.

Ziurtagiri digitala eskuragarri egongo da posta elektronikoan jakinarazpena jasotakoan. Sartu "IVAPekiko izapideak", "Ziurtagiriak" atalean.

### PREZIOA

**144€**

### OHARRA

**Laguntza teknikoa** behar izanez gero:

- Jarri harremanetan CAUekin, telefono-zenbaki honetan: (945016) **440**
- Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 20:00etara.

**Ikastaroarekin** lotutako kontsultak egiteko:

- [suport@gamelearn.zendesk.com](mailto:suport@gamelearn.zendesk.com)
- Telefono bidez erantzutea nahi izanez gero, eska ezazu helbide berean

**Administrazio-gaiekin** lotutako kontsultak egiteko: [prestakuntza@ivap.eus](mailto:prestakuntza@ivap.eus)